Semaforo baten bizitzaren kontakizuna

Sefa hiri batetan bizi zen semaforoa zen. Mundu guztia zegoen haserre berarekin, kotxeak eta peatoiak ez zeuden ados egiten zituen kolore aldaketekin, eta horrek umore txarra eragin eta Sefak kontrolatzen zuen kaleak fama txarra izatea sortarazten zuen.

Hasieran Sefa ere tristetu eta haserretu egiten zen, ez zuen ulertzen zergatik haserretzen zen mundu guztia, berak esaten ziotena egiten zuen besterik ez. Baina momentu batean konturatu zen errua ez zela berea, antsietatearena baizik, auzoz auzo joaten zena hegan, tabernaz taberna jendearen arima belzten, eta arazo eta kexen artean Sefari ere min egiten zionaren errua zela konturatu zen.

Ezin zuen onartu antsietatea izeneko horrek hainbesteko eragina izatea gau eta egun kontrolatzen zituen kaleetan, urteak pasa ahala heldu bihurtzen ikusten zituen umeetan, eta egunero geldiarazten zituen autobus gidarietan, baina ezin zuen ezer egin, denbora pasatu egiten zen eta bera han zegoen, geldi, estatua baten antzera, gorritik horira eta horitik berdera.

Sefaren ametsa bizikleta bat gidatzea zen, mundu guztiak gida ditzakeen, kirola egiteko balio duten, eta askorentzat askatasuna adierazten duen ibilgailuan. Baina han jarraitzen zuen beti, leku berean, aske izan daitekeen jendeak antsietatearen erruz aukerak nola galtzen zituzten ikusten zuen bitartean.

Hasieran desio bat besterik ez zen bizikletaz ibiltzea, amets bat, baina denborarekin boteretsuago egiten joan zen, eta berak metal tutu baten barruan harrapatuta jarraitzen zuen. Bete ezin zen desio horrek txoratu egiten zuen, pasatzen zen segundu bakoitzean sentitzen zuen nola bere indarra agortzen joaten zen eta bere hiru koloreko argietan, eta nola tutua oxidatzen hasten zen.

Hala ere, goiz hartan bere argiak berriro ere piztu ziren, indar gutxirekin baina lanean. Egun neketsua izan zen, trafikoz betea, eta, naiz eta bere metala edozein momentutan apurtuko zela sentitzen zuen, gauparteraino irautea lortu zuen.

Zortziak aldera arte. Peatoiei argi berdea piztu zien, baina bere indarrek ez zioten utzi kotxeei argi gorria pizten, eta ziztu bizian zetorren kotxe bati gelditzeko esaten. Oso

gertu zegoenean konturatu zen gidaria gelditu behar zela, eta frenatzeko denborarik gabe, Sefa zegoen lekurantz giratu zuen kotxea, pasatzen ari zen umeari ez ematearren. Ez zen zauriturik egon, pertsonarik ez behintzat, baina Sefa guztiz apurtuta geratu zen. Ez zegoen konpontzeko modurik, bere hiru argiak betirako itzali ziren.

Semaforoaren bizitza amaitu egin zen, baina Sefarena ez, bere metala berrerabilgarria zela adostu zen, eta hiritarrek birziklagunera eraman zuten, han bere material hori bizikleta berri bat egiteko erabili zuten, eta Sefak bere ametsa betetzea lortu zuen, munduan zehar ibili zen, herriak, hiriak, herrialdeak, kontinenteak ezagutu zituen, eta zoriontsu bizi izan zuen bere bizitza berria, antsietatea urrun zeukan bizitza berria.

Maitane Iturriaga 2026/10/14